# GORABIDE

Nº 261 Zk.
JUNIO DE 2017
2017KO EKAINA

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA

INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Reconocimiento de discapacidad
Desgaitasunaren aitorpena
pg. 4 or.




Día del Tercer Sector Social
Hirugarren Sektoreko Eguna
pg. 5 or.



Proyecto sobre salud buco-dental
Aho-hortzetako osasun-proiektua
pg. 6 or.



## SANTIAGO LÓPEZ, PRESIDENTE DE PLENA INCLUSIÓN

# *“Gorabide es una entidad referente para el movimiento de Plena inclusión”*

## SANTIAGO LÓPEZ, PLENA INCLUSIONEKO PRESIDENTEA

# *“Gorabide erreferentziako entitatea da Plena Inclusion mugimenduarentzat”*



## Es necesario actualizar la información sobre capacidad de obrar (pg. 7)

## Beharrezkoa da jarduteko gaitasunari buruzko informazioa eguneratzea (7. or.)

GORABIDE
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
www.gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide

Colabora
Laguntzen du
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# “Gorabide erreferentziako entitatea da Plena inclusion mugimenduarentzat”

**Santiago López Plena inclusioneko presidenteak gure estrategiak goresten ditu, familia oinarri duen elkarte eredua, ekipo profesionala eta ingurunearekiko loturak**

**Plena Inclusionen misioaren eboluzioak gure pertsonen eta familien bizi kalitatea hobetzen laguntzera eraman gaitu.**
*Ezinbesteko aldaketa zen. Lanaren ardatz bihurtu dugu pertsona bakoitza eta familia bakoitza, euren bizimoduaren protagonista bihurtuta; ahal den guztian laguntzen diegu euren bizitzako proiektua garatu dezaten. Ez da euren ordez egitea, erraztea da, kontuan izanik euren beharrak, nahiak eta behar dituzten laguntzak. Eta bizi proiektu horretan guztian agente bat gehiago gara, beste askorekin batera, hala nola, lan ingurua, familiak, ingurune naturalak… horregatik “lagundu” hitza kutsu garrantzitsua duen urratsa da.*

**Plena inclusionen helburuetako bat da elkartegintzan aldaketa eta belaunaldien erreleboa egitea.**
*Bizigarria nahi dugu, behar beharrezkoa da eta. Familia gazteen inplikazioa ez ezik familia zabalarena ere behar dugu: neba-arrebak, koinatu eta koinatak… Funtsezkoa da jatorriaren ezagutza eta etorkizunera begira egindako lana konbinatzea, jarraipena bermatzeko, gurearen moduko elkarte mugimendu batean behar den indarra eta adorea izateko, eta eskubideak aldarrikatzeko talde garrantzitsua izateko.*

**Familien parte hartzea ezinbestekoa delako.**
*Aurrera egiteko, familiek erantzunik onenak eskatu behar dizkiegula elkarteei, egia da, baina gure aldetik ere lan egin behar dugu, euren alde egin eta erakundean lagundu. Elkarteak ez dira makina hornitzaileak, izatekotan ere, txalupa baten antz handiagoa dute, izan ere denok norabide berean egiten badugu arraun urrunera iritsi gaitezke.*

**Baita ere, eraldaketa prozesu, kalitate, berrikuntza, sareak eta itunnetarako apustua dago.**
*Apustua egin da eraldaketa, kalitate, berrikuntza, sare eta hitzarmen prozesuetarako. Horrela da, eraldaketa etengabeko prozesua da, gure lan egiteko moduan, zentroetan eta zerbitzuetan. Berrikuntza eta lankidetzaren alde egiten duen mugimendua gara. Gure adimen kolektiboa da dugun ondasunik handienetakoa. Jende sortzailea, baliodun proposamenak sortzeko gai dena eta, eskuzabaltasunez, besteen eskura jartzen dituena.*

**Eta nola ikusten da Plena inclusionen ikuspegitik Gorabideren profila?**
*Zalantzarik gabe, Gorabide erakunde erreferentea da Plena inclusionen mugimendurako, garapen mailagatik, bai kudeaketa aurreratuaren ereduan, bai estrategia horien orekan ondo finkatutako proiektu batean, familia oinarri duen elkartea da, ingurunearekin lotura sendoa duen talde profesional handia. Proiektu hau denboran iraunkorra eta aktiboa egitea oso lorpen kolektibo garrantzitsua da, zalantzarik gabe.*

IRAKURKETA ERRAZA

Plena inclusioneko presidenteak dioenez, elkarteek lagundu egin behar diete pertsonei, ez dena egin euren ordez. Eta uste du garrantzitsua dela gauza berriak egitea. Gainera, dio familia gazteek parte hartzen hasi behar dutela. Eta uste du Gorabide elkarte garrantzitsua dela, lan egiteko modu ona duena.







# “Gorabide es una entidad referente para el movimiento de Plena inclusión”

**Santiago López, Presidente de Plena inclusión, valora nuestras estrategias, modelo asociativo de base familiar, equipo profesional y alianzas solidas con el entorno**

**La evolución de la misión de Plena inclusión nos ha llevado a contribuir a mejorar la calidad de vida de nuestras personas y familias.**
*Era un cambio ineludible. Hemos pasado a centrar el trabajo en cada persona y en cada familia como protagonistas de su propia vida; les apoyamos para que sea posible que desarrollen su proyecto vital. No es hacer por ellos, es facilitar, teniendo en cuenta sus necesidades, sus deseos y los apoyos que requieren. Y en todo ese proyecto de vida somos un agente más, junto a otros muchos, como el entorno laboral, las familias, sus entornos naturales... de ahí que esa palabra “contribuir” sea un paso con un importante matiz.*

**Uno de los horizontes de Plena inclusión es el cambio y relevo generacional en el asociacionismo.**
*Queremos incorporar savia nueva, absolutamente necesaria. Implicar no sólo a familias jóvenes, sino también a la familia extensa: hermanos y hermanas, cuñados y cuñadas… Es fundamental combinar el conocimiento de dónde venimos y lo que se ha luchado con una mirada de futuro, que garantice la continuidad, la fuerza y el arranque que es necesario tener en un movimiento asociativo como este, que debe tener una importante vertiente de reivindicación de derechos.*

**Porque la participación de las familias es fundamental.**
*Es verdad que, para avanzar, las familias tenemos que solicitar a las asociaciones mejores respuestas, pero también hay que poner de nuestra parte, remar a favor y ayudar en tu entidad. Las asociaciones no son máquinas expendedoras; en todo caso, se parecen más a una trainera donde se llega lejos si todos remamos en la misma dirección.*

**También hay una apuesta por procesos de transformación, calidad, innovación, redes y alianzas.**
*Efectivamente, la transformación es un proceso imparable, en nuestra forma de trabajar, en los centros y en los servicios. Somos un movimiento que apuesta por la innovación y la cooperación. Nuestra inteligencia colectiva es uno de los mayores patrimonios que tenemos. Gente creativa capaz de generar propuestas de valor y, también, de forma generosa, ponerlas al servicio de los demás.*

**¿Y cómo ve desde el prisma de Plena inclusión el perfil de Gorabide?**
*Sin duda, Gorabide es una entidad referente para el movimiento de Plena inclusión por su nivel de desarrollo, tanto en el modelo de gestión avanzada como en el equilibrio de estas estrategias en un proyecto bien asentado, una identidad clara asociativa de base familiar, un gran equipo profesional con alianzas solidas con el entorno. Hacer sostenible y activo en el tiempo este gran proyecto, sin duda, es un logro colectivo muy importante.*

LECTURA FÁCIL

El presidente de Plena inclusión dice que las asociaciones deben ayudar a las personas, no hacerlo todo por ellas.
Y cree que es importante hacer cosas nuevas. También dice que las familias jóvenes deben empezar a participar.
Y cree que Gorabide es una asociación importante con una buena forma de trabajar.

## información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Valoración y reconocimiento de la discapacidad

El reconocimiento del grado de discapacidad es un documento oficial (Orden Foral) emitido por la Diputación Foral de Bizkaia que acredita la discapacidad de una persona, de manera provisional o definitiva, y es importante que esté actualizado. El primer paso obtenerlo es presentar una solicitud en el Centro Base de Valoración de Discapacidades (Uribitarte nº 15, Bilbao), donde un equipo de valoración determina la discapacidad y su grado y si la persona tiene dificultades para utilizar los transportes públicos colectivos. Junto con la solicitud, pueden aportarse informes médicos, psicológicos y sociales que ayuden a la valoración. En el servicio BBK SAIOA GORABIDE hacemos las correspondientes valoraciones para aportar al Centro Base.

En base a los resultados obtenidos por los equipos forales de valoración y orientación, el Centro Base dicta y notifica una resolución en la que especifica:

- Diagnóstico de la discapacidad.
- Tipo y grado de discapacidad.
- En su caso, la existencia de dificultades de movilidad para utilizar transporte público.

En función de esos datos (diagnóstico, grado y movilidad) la persona solicitante podrá tener acceso a:

1. Servicios.
2. Pensiones y prestaciones.
3. Beneficios fiscales.
4. Tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.
5. Reducciones de precio en medios de transporte.
6. Ventajas laborales, empleo protegido, jubilación.
7. Otros.

Es posible pedir la revisión del grado de discapacidad cuando hayan transcurrido un mínimo de dos años desde la resolución. Ese plazo mínimo no será necesario cuando se acredite error de diagnóstico ni cuando se produzcan cambios notorios.

# Desgaitasunaren balorazioa eta aitorpena

Desgaitasun gradua aitortzen duen agiria ofiziala da (Foru Agindua), Bizkaiko Foru Aldundiak ematen du, eta pertsona batek duen desgaitasun gradua egiaztatzen du, behin behinekoa edo behin betikoa, eta garrantzitsua da eguneratuta edukitzea. Lehenengo, eskaera aurkeztu behar da Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalean (Uribitarte 15, Bilbao), han talde batek erabakiko du zein den desgaitasuna eta gradua, eta pertsona horrek zailtasunak dituen garraio publiko kolektiboak erabiltzeko. Eskaerarekin batera, balorazioa egiten lagundu dezaketen txostenak ere aurkeztu daitezke, mediku, psikologo eta gizarte langilearenak. BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuan, behar diren balorazioak egiten ditugu Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalera eramateko

Foru Aldundiko balorazio eta orientazio taldeek dituzten emaitzetan oinarrituta, Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalak ebazpena ematen du eta hau zehazten du:

- Desgaitasunaren diagnostikoa.
- Desgaitasun mota eta gradua.
- Hala balitz, garraio publikoa erabiltzeko mugikortasun zailtasunak.

Datu horien arabera (diagnostikoa, gradua eta mugikortasuna), eskatzaileak onura hauek izango ditu:

1. Zerbitzuak
2. Pentsioak eta prestazioak.
3. Onura fiskalak.
4. Desgaitasuna dutenentzako aparkatzeko txartela.
5. Garraio publikoetan prezio bereziak.
6. Abantailak lanerako, lan babestua, erretiroa.
7. Beste batzuk.

Desgaitasun graduaren errebisioa eska daiteke, ebazpenetik bi urte edo gehiago pasatutakoan. Gutxieneko epea ez da bete behar, diagnostikoan akatsa dagoela egiaztatzen bada edo aldaketa handiak egonez gero.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# El Día del Tercer Sector Social de Euskadi reúne a instituciones públicas y entidades

## *El acto también sirvió para rendir un homenaje póstumo a Pedro Fernández, director de Fevas y uno de los pilares del movimiento asociativo vasco*

Sareen Sarea organizó en el Museo Marítimo de Bilbao el Día del Tercer Sector Social de Euskadi, cuando se cumplía un año de la aprobación en el Parlamento Vasco de la ley que define y regula nuestro sector. Participaron en el acto representantes de las entidades vascas de acción social y de las instituciones públicas, haciendo visible *"un espacio compartido e integral, orientado a atender a personas con necesidades sociales y sanitarias"*, en palabras del lehendakari Iñigo Urkullu.

Con el lema *La maravillosa sensación de ser parte*, Sareen Sarea quiso visibilizar el trabajo de las personas que trabajan en las más de 3.500 organizaciones sociales de Euskadi, así como a quienes usan los servicios que prestan. En ese sentido, la presidenta del Parlamento Vasco Bakartxo Tejeria reconoció la importancia de *"un tejido social extenso, plural y activo, que canaliza la solidaridad organizada y la participación social"*. Por su parte, el alcalde de Bilbao Juan Mari Aburto, recordó la contribución *"históricamente decisiva"* del tercer sector *"en la configuración de los servicios sociales".*

**Homenaje a Pedro Fernández**

El acto sirvió también para rendir homenaje póstumo a Pedro Fernández, director de Fevas y uno de los pilares del movimiento asociativo vasco, en reconocimiento al compromiso con el tercer sector que mantuvo siempre.



# Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna erakunde publikoak eta entitateak elkartu du

## *Ekitaldian, hilondoko omenaldia eman zitzaien ere Pedro Fernándezi, Fevas-eko zuzendaria eta euskal mugimendu asoziatiboaren zutabe bat*

Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna antolatu zuen Bilboko Itsas Museoan, izan ere urte bete da Eusko Legebiltzarrak onartu zuela gure sektorea definitzen eta arautzen duen legea. Ekitaldian egon ziren gizarte ekintzako euskal entitateetako eta erakunde publikoetako ordezkariak ikusgarri egiteko *"espazio partekatu eta integrala, gizarte eta osasun beharrak dituzten pertsonei arreta ematekoa"* Iñigo Urkullu lehendakariaren hitzetan.

Zoragarria da partaide izatea lelopean, Sareen Sareak ikusgarri egin nahi izan zuen Euskadiko 3.500 erakunde sozialetan baino gehiagotan lan egiten duten pertsonen lana eta ematen dituzten zerbitzuak erabiltzen dituztenak ere bai. Hori dela eta, Eusko Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeriak aitortu zuen *"ehun sozial zabala, anitza eta aktiboa da eta antolatutako solidaritatea eta gizarteko parte hartzea bideratzen ditu"*. Bere aldetik, Juan Mari Aburto Bilboko alkateak gogorarazi zuen sektore sozialak ekarpen *"erabakigarria historian"* egin zuela *"gizarte zerbitzuen eraketan"*.

**Pedro Fernándezi Omenaldia**

Ekitaldiak balio izan zuen hil osteko omenaldia egiteko Pedro Fernández Fevaseko zuzendari zenari, hirugarren sektorearekin izandako konpromisoaren aitorpen modura, bera izan baitzen euskal elkarte mugimenduaren zutabeetako bat.

# Proyecto sobre salud bucal dirigido a personas con discapacidad intelectual

## *La UPV-EHU ofrece una exploración bucodental completa y asesoramiento para la prevención y salud odontológica de las personas que participen*

Dentro del programa de Doctorado en Inmunología, Microbiología y Parasitología de la Facultad de Medicina y Enfermería de la Universidad del País Vasco, se va a realizar el 'Estudio de la patología oral y de su relación con el género, en la población con discapacidad intelectual'. El objetivo es realizar una evaluación bucodental completa de todas las personas participantes, para concienciarnos de la importancia de la salud bucal y odontológica. Así, se elaborará una guía práctica con recomendaciones, y se podrán mejorar los programas preventivos.

Para llevar a cabo este estudio, se realizará a todas las personas interesadas, mayores de 18 años y con discapacidad intelectual, una exploración bucodental completa, además del asesoramiento para la prevención y salud odontológica.

**Alta prevalencia**

Esta investigación se justifica por la elevada prevalencia de afecciones bucodentales en las personas con discapacidad intelectual, y la necesidad de mejorar los programas preventivos en Euskadi.

Las personas con discapacidad intelectual que quieran informarse o participar en el proyecto, pueden contactar con Iratxe Aspiazu, odontóloga y responsable del proyecto, en el teléfono 94 601 29 20 o en el e-mail ieaspiazu001@ikasle.ehu.es.




# Ahoko osasunari buruzko proiektua adimen desgaitasuna dutenentzat

## *EHUk aho-hortzetako azterketa osoa eta prebentziorako eta hortzetako osasunerako aholkularitza eskaintzen ditu parte hartzen dutenen pertsonentzat*

Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Inmunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Doktore Programaren barruan, ikerketa bat egingo da 'Ahoko patologiaren eta generoarekin duen erlazioaren azterketa, adimen desgaitasuna dutenen artean'. Helburua da parte hartzen duten pertsona guztien aho hortzetako ebaluazio osoa egitea, ahoko eta hortzetako osasunaren garrantziaz kontzientziatzeko. Horrela, gida praktikoa egingo da gomendioekin, eta prebentzio programak hobetu ahal izango dira.

Ikerketa hori egiteko, adimen desgaitasuna duten 18 urtetik gorakoen artean, interesa dutenei ahoko azterketa osoa egingo zaie eta prebentziorako eta haginetako osasunerako aholkuak eman.

**Prebalentzia altua**

Ikerketa honen justifikazioa da oso prebalentzia handia dutela aho eta hortzetako infekzioek adimen desgaitasuna dutenen artean, eta prebentzio programak hobetu beharra dagoela Euskadin.

Informazioa jaso edo proiektuan parte hartu nahi duten adimen desgaitasuna duten pertsonek, kontaktuan jar daitezke Iratxe Aspiazu odontologo eta proiektuaren arduradunarekin, 94 601 29 20 telefonoan: edo e-mailez: ieaspiazu001@ikasle.ehu.es.

# Es necesario tener actualizada en la Diputación la información sobre la capacidad de obrar

La Diputación Foral de Bizkaia ha solicitado nuestra colaboración ante el incremento de casos de personas de las que no tiene información actualizada en relación a su capacidad de obrar, tanto en situaciones de lista de espera de recursos como en personas usuarias de centros. En ese sentido, es necesario recordar la obligación que tienen las familias y personas o entidades tutoras de informar puntualmente al Departamento de Acción Social sobre cualquier cambio en la situación de capacidad de obrar de las personas con discapacidad intelectual.

Para evitar posibles consecuencias indeseadas derivadas de la falta de actualización de esos datos, las familias o personas tutoras deben aportar tres documentos:

- Sentencia de modificación de la capacidad de obrar.
- Nombramiento de tutor o tutora.
- Aceptación del cargo.

### Recogida en Gorabide

Para facilitar los trámites, las trabajadoras sociales de nuestro servicio BBK SAIOA GORABIDE recogerán esa documentación, y se encargarán de facilitársela a la Diputación.

# Beharrezkoa da Aldundian eguneratuta edukitzea jarduteko gaitasunari buruzko informazioa

Bizkaiko Foru Aldundiak gure laguntza eskatu du, gero eta gehiago direlako jarduteko gaitasunari buruzko informazioa eguneratu barik dutenak, bai baliabideetarako itxaron zerrendan daudenak bai zentroetako erabiltzaile diren kasuetan. Hori dela eta, gogoratu behar dizuegu familiek eta tutore edo erakunde babesleen betebeharra dela Gizarte Ekintzako Sailari informazioa ematea, adimen desgaitasuna dutenen jarduteko gaitasunean aldaketarik egonez gero. Datu horiek eguneratuta ez izateagatik, nahi ez diren ondoriorik egon ez dadin, familiek edo tutoreek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- Jarduteko gaitasunaren aldaketaren epaia.
- Tutorearen izendapena.
- Karguaren onarpena.

### Gorabiden bilketa

Tramiteak errazago egiteko, gure BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuko gizarte langileek hartuko dute dokumentazio hori, eta eurek Aldundiari emateaz arduratuko dira.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE zerbitzua**
**administracionsaioa@gorabide.com**
**Tel. 94 453 90 86**

## LABURRAK
## BREVES

### Club Diario Bilbao, abierto en julio

Como en años anteriores, el Club Diario de Bilbao permanecerá abierto todo el mes de julio, de lunes a viernes, de 17:30 a 21:00. Las personas con discapacidad intelectual mayores de 18 años interesadas en hacer uso de este servicio, pueden apuntarse, durante el mes de junio, llamando al teléfono 94 443 12 10.

### Bilbo Eguneroko Kluba uztailean

Beste urte batzuetan bezala, Bilboko Eguneroko Kluba zabalik egongo da uztaila osoan, astelehenetik ostiralera, 17:30etak 21:00etara. Adimen desgaitasuna duten 18 urtetik gorakoek, zerbitzu hori erabili nahi badute, izena eman dezakete ekainean, telefono honetara deituta: 94 443 12 10

### Subvención de la Fundación Once

La Fundación Once ha concedido una subvención de 48.420,05 euros para acometer la fase 2 del proyecto de conexión de la Residencia Atxarte a la red de agua potable del municipio de Abadiño: instalación de un sistema de almacenaje y de bombeo.

### Once Fundazioaren dirulaguntza

Once Fundazioak 48.420,05 euroko diru laguntza eman du Atxarte Egoitzara Abadiño udalerriko ur edangarriaren sarea eramateko proiektuaren bigarren fasea egiteko: biltegiratze eta ponpaketa sistema bat instalatzeko.

# GORABIDE

JUNIO DE 2017 | Nº 261 Zk | 2017KO EKAINA


Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## LA FOTO ARGAZKIA



**Personas usuarias de nuestra Residencia Isasti han comenzado a colaborar con Aemet en el registro de lluvias en Lanestosa, controlando un pluviómetro.**

**Gure Isasti Egoitzako erabiltzaileak Aemetekin kolaboratzen hasi dira Lanestosako uren erregistroan, plubiometro bat kontrolatzen.**



# agenda junio ekaina

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

### LOS VETERANOS
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 14 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:00

### LOS ELEGANTES
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 14 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:00

### JÓVENES
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 13 martes / asteartea — Hora / Ordua 18:00

### GURE AHOTSA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna 28 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:00

## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

### FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna 22 jueves / osteguna — Hora / Ordua 18:00

### FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna 26 lunes / astelehena — Hora / Ordua 18:00

### FAMILIAS DE NIÑAS CON SÍNDROME DE RETT / ESKOLA-UMEETAKO ETA RETT DUTEN NESKETAKO FAMILIAK
**SESIÓN SOBRE INTIMIDAD | INTIMITATEARI BURUZKO SAIOA**
Comité de Ética de Gorabide | Gorabideko Etika Batzordea
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna 24 sábado / larunbata — Hora / Ordua 11:00

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

### BUSTURIALDEA — Actividad / Aktibitatea
*Astra Kulturarako Fabrika Soziala*
Día / Eguna 1 jueves / osteguna — Hora / Ordua 17:00

### DEUSTO-SAN IGNACIO — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
Día / Eguna 6 martes / asteartea — Hora / Ordua 19:30

### DURANGALDEA — Programa / Goratu
*Pinondo Etxea. Pza. Pinondo - Durango*
Día / Eguna 21 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 18:00

### ERMUA — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua*
Día / Eguna 5 lunes / astelehena — Hora / Ordua 19:30

### MUNGIALDEA — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
Día / Eguna 6 martes / asteartea — Hora / Ordua 20:00

### SANTURTZI — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
Día / Eguna 28 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua 19:00

D.L./L.G. BI-394-2014